



Mikel Laboa zenaren omenez, musika instalazio bat jarri dute Belgikako hiriburuan. Musikariaren ahotsaz gozatu ahal izango dute bisitariak, asteazkenera arte.

Laboaren itzala Bruselan

Jon Olano

Laboaren ahotsa entzun ahal izango dute Bruselako La Bellone Maison du Spectaclera datozen egunetan bilduko diren bisitariak. Mikel Laboa musikari eta kantariaren omenez, musika instalazio bat jarri baitute, Laboa hil zela bost urte beteko direnean —2008ko abenduaren 1ean hil zen—.

«Mikelen ahotsa baita haren altxor nagusia». Hala deskribatu du Itziar Zubizarreta erakusketaren komisarioak Mikel Laboa zenaren omenez Bruselan antolatu duten erakusketa. Belgikako hiriburuko La Bellone kultur etxean aurkeztu zuten atzo erakusketa, eta abenduaren 4ra arte izango da zabalik.

Euskal Herriko Unibertsitatearen Mikel Laboa katedra sortu berriak eskatuta eta Etxepare Institutuak antolatuta sortu dute erakusketa, eta Bruselan asteen den euskalgintzaren ordezkariak parte hartu zuen atzo inaugurazio ekitaldian. Besteak beste, Aizpea Goenaga Etxepare Institutuko zuzendaria, Paul Bilbao Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluko idazkari nagusia, Koldo Tellitu Ikastolen Elkarteko presidentea eta Mikel Irizar Topaguneko presidentea izan ziren ekitaldian.

«Gure musikaren ezinbesteko erreferentzia» da Laboa, adierazi zuen Aizpea Goenagak erakusketaren inaugurazioan. Haren ekarpena, berriz, «unibertsala» izan zela gogoratu zuen.

Espazio guztiak «hustu» egin dituzte. Eta aretoak hutsik uzte horretan bada Jorge Oteiza eskultore eta Laboaren lagun zenari eginiko keinu bat, Zubizarretak aitortu duenez. Aretotako batean, tabernako aulki bat baino ez dute jarri; hura zuen Laboak bidelagun, Zubizarretaren hitzetan.


Entzumenarekin jarraitu beharreko erakusketa da, komisarioak azaldu duenez. IPadak prestatu dituzte Laboaren kanta ugarirekin, eta haren ahotsak eta abestiek gidatzen dute bisitaria. Nolanahi ere, bada zer ikusi ere; Laboaren diskoen azalak zintzilikatu dituzte hormetan, eta bideo ugari jarri dituzte ikusgai: esaterako, Danimarkako telebista kate batek Gernikaren inguruan eginiko dokumental bat, soinu gisa Laboaren doinuak dituenak.



Areto batean, aulki bakarra jarri dute. ETXEPARE INSTITUTUA



Laboaren diskoen azalak jarri dituzte paretetan. ETXEPARE INSTITUTUA



Maratila

Lucien Etxezaharreta



Berotzeko

Nabarralde elkarrekin bere urteko saria datorren asteartean eskainiko die Iparraldeko lagun batzuei Baionan, Kanaldudek egin film dokumental batean agertzen diren Orreagako Gatazkaren historiari egin dituzten lan batzuegatik. Bistan da Euskal Herri osoa izozten hasia zaigun garaian, gozo da abuztuaren 15ean, ziur aski egun bero batez gertatuaz gogoratzea. Orreaga Nafarroako erresumaren pizgarri izan zela, orduko euskal leinuek bat egiten ikasi zutela, toki horren izena Europa osoan hedatu zela nahiz orria lapar bilakatuz erdaretako itzulpenetan. Lapar gune hori lapur bilgune bilakatu zela zioten orduko kronikalari *embedded-katuek*: euskaldunak gaizto, lapur, kixkil eta guzti, beste bazter batzuetan ere hori entzun dugu. Baina badakigu inperio handietako manatariak erraz gaitzitzen direla txikiak oldartzen direlarik eta uztar itsusi bat hartzen dutelarik. Beude beren egiekin; guk gurea aski genuke.

Kondairek, mitoek, toki handia hartzen dute Historian. Karl der Gross, Karlomagno Handiak omen eskola asmatu zuen (frantses eskola bistan da, ez ikastolak!), eta gogoan dut urtarrilaren 28an ospatzen genuela hori lehengo denboretan, baina gaur ahanzia da. Bizarra lore zuena kristau handia zen, eta zerura zuzenean hamar milaka saxoiak bidali zituen Aita Santuak enperadore koroa jarri aurretik.

Mitoek eta gezurrek hazi dituzte inperioak, gu gure Lamin zulo edo erreketako Mari polit eta harpeetako Andere Xuriekin ginenean oraindik. Bakoitzari bere kondaira. Gurea ez da hain itsusia!

Larunbata
2013ko azaroaren 30a

berria

